

Ago bee, eure indar neurrian,
txiki-muiñean galdua:
goiegi bai yagok urdiña,
euki eure bee-lekua.

* * *

Bakoitzak bere indar
barru begi ausnar.

NEGAR-ERESIA

11 aurreko garrasiz, lizar adar baten,
zegon papar-gorria. Ez eban pozgairik,
t'onela iñarduan oiuka mingotsik:

«Gau t'egun neke biziz, min dot biotzean;
atxilotu lez zuri negarrez nago ni...
Baiña zertako oiñaze auxe —doakabe!—,
entzun ezpa-dagizuz nire ai-otsak,
aidean ba-darraie erantzunik gabe?

Zigor zartaz narabil zoritxar beteak;
ez dauz nai iñok eroan —ezta egoak be—
zure abi-zokora ene inkesa uiñak,
nire biotzak, urdail ardatz iduriko,
eioszen diarduan maitezko lakaiñak.

Oiñazeak geldirik gabe nau ozkatzen,
ez daust ezek eskein nai biotz-poztasunik.
Gomutaz nabilkizu zugandik urrean,
baiña soiñez zaukadaz oso aldendurik.

Oi, zoritxar eskergea! Biotzean min dot!
Ta, zer egin? Aizetan uluka soil-soilki.

Ez dautsot, ez, iñori opa onakorik.
Ez dot jñor ikusi gura, ez, onako
egon-ezin larrian, oiñazez jausirik.

Deika, deika diardut egunaren luzez,
deika, bai, zinkuliñez, negar garratzean;
alan be zuk eztozu, ez, belarriz artzen
nire dei bizi onen oiartzun ozenik,
ta samiñaren sua yat aziagotzen.

Oiñazez dot biotza, oiñazez soin dana,
negar gauan itorik gunaren barrena,
odol-iturri ditut begi zuloak be.
Onan noizarte nazan biziko ez dakit,
eta iltea, bear bada, ez litzakit obe?

Joan ziñan goiz batez. Betiko joana?
Onexek daust sastatzen izate osoa,
onexek daust —erio sastakai zolia—
barrua lazki, eten gabe, jñarrosten.
Il eziñaren kezka, naas-maas ugaria.

Argiak ez dau pozik, ez zelai berdeak,
Zorazi al? Miñaren saria litzakit.
Baiña, maite! Nik eztot gura zoratzerik.
11 terik eztot gura. Bizia bai eder!
Noiz poztuko nau zure irriak, bizirik?»

Il-kexu oneik jalgiz, lizar adarrian,
maiteño galdu billa asi zan zolia.
Egazti naiz gizaki, bardintsu zorian.